Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4466

232/2010 DEKRETUA, irailaren 7koa, Erromoko Eskubaloi Taldea herri-onurakoa dela deklaratzeko dena.

Getxoko Erromoko Eskubaloi Taldearen jarduna kontuan hartuta (Ganeta kalea 3, behea), entitate hori herri-onurakoa dela aitortu behar dela uste du Jaurlaritzak, kirolaren alorrean Euskadiko biztanleen interesen alde egiteagatik.

Kirol-klubak herri-onurakoak direla aitortzerakoan jarraitu beharreko betekizunak zehazten dituen ekainaren 11ko 14/1998 Legearen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa kontuan hartu da, eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman dute.

Horri jarraiki, Kulturako sailburuaren proposamenaz, eta 2010eko irailaren 7an egindako bilkuran Jaurlaritzaren Kontseiluak eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Getxoko Erromoko Eskubaloi Taldea herri-onurakoa dela deklaratzen da, bere jardueraren bidez Euskadiko biztanleen interesei laguntzen baitie. Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan 835 zenbakiarekin dago inskribatuta entitatea. Horrela bada, Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen 32. artikuluan ezarritako onura fiskalez baliatzeko eskubidea izango du entitateak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko irailaren 7an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4466

DECRETO 232/2010, de 7 de septiembre, por el que se declara de Utilidad Pública al Club Balonmano Romo.

En atención a las actividades desarrolladas por el Club Balonmano Romo, con domicilio en Getxo, calle Ganeta 3 bajo, el Gobierno considera que procede reconocer de utilidad pública a la citada entidad, por considerar que promueve el interés general de Euskadi en el campo del Deporte.

Conforme a lo dispuesto en la disposición adicional primera de la Ley 14/1998, de 11 de junio, por la que se determinan los requisitos para la declaración de utilidad pública de los clubes deportivos; y habiendo informado favorablemente la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco y la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Bizkaia.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 7 de septiembre de 2010.

DISPONGO:

Artículo único.– Se reconoce de Utilidad Pública al Club Balonmano Romo, de Getxo, inscrito en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco con el número 835, por considerar que contribuye a la promoción del interés general de Euskadi mediante el desarrollo de sus funciones, gozando de los beneficios establecidos en el artículo 32 de la Ley 14/1998, del Deporte del País Vasco.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de septiembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.